

BATASUNAREN LEGEZ KANPORATZEA

Espainiaren «presio diplomatikoa» salatu dute Alvarezek eta Urrutikoetxeak

Italiako ordezkari politiko eta sindikalekin bildu dira legebiltzarkideak

Erredakzioa | DONOSTIA

Sozialista Abertzaleak taldeko bi legebiltzarkide, Joseba Alvarez eta Josu Urrutikoetxea, Italiako ordezkari politiko eta sindikalekin bildu dira legebiltzarkideak. Gainera, Europara eta Amerikara asmo berberarekin bidaia egin eta «nazioarteko bira» bati ekin nahi diotela adierazi zuten.

Batetik, Rifundazione Comunista taldeko eta CGIL eta Cobas sindikatuarekin bildu dira Alvarez eta Urrutikoetxea. Bestetik, bi hitzaldi eman dituzte; bata La Spezzian, eta bestea Florentzian.

Instituzioetako zenbait ordezkariarekin ere bildu dira. La Spezziako alkateordearekin eta probintziako lehendakariarekin

–biak ezkerreko EPP alderdikoak– «elkartze ofiziala» izan zuten bertako Batzar Nagusietan. EPPko arduradun instituzionalak eta bileran zeuden RFC eta CGILgo ordezkariak «Batasunaren legez kanporatzea astakeriatzat» jo zuten.

«Presio diplomatiko gogorak» Bestalde, bi legebiltzarkideen bira eragozteko asmoarekin «presio diplomatiko gogorak» egin bide ditu Espainiako Gobernuak. «Presio horien ondorioz», Liguriako lehendakariarekin eta Genoako instituzioetako ordezkariarekin aurreikusita

zitzen bilerak bertan behera geratu ziren. Hala ere, Italiako presidente izandako Francesco Cossigaren elkarrizketatu egin ziren. Azken horrek, bere bulegoan hartu zuen Joseba Alvarez, eta ondoren biek batera prentsaurrekoa eman zuten. «Jasotako presioak» eta «Batasunaren aurka Aznarrek hartutako erabakia» salatu zituen Cossigak.



LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS
Josu Urrutikoetxea.

Urrutikoetxea ikertzea erabaki du Espainiako Auzitegi Gorenak

Agentziak | MADRIL

Josu Urrutikoetxea EAEko Sozialista Abertzaleak taldeko parlamentarioaren kontrako prozedura judiziala zabaltzea erabaki zuen atzo Espainiako Auzitegi Gorenak. Urrutikoetxearen kontra «zantzu kriminalak» daudela iritzi dio Auzitegi Goreneko Bigarren Atalak, eta ikerketak abiatuko ditu.

Goreneko fiskalak uztailearen 31n eskatu zion auzitegi horri Urrutikoetxearen kontrako eginbide judizialak hasteko. Auzitegi Nazionalak utzi zuen gaia Gorenaren esku, Urrutikoetxea foruduna delako. Gorenak atzo kaleratutako ebazpenean dio berari dagokiola ikerketa egitea.

1987an Zaragozan izan zen atentatu baten harira ikertuko dute Urrutikoetxea. Urrutikoetxeari atentatua «egitea bultzatu izana» leporatzen diote. Jasotako dokumentazioaren arabera atentatua egiteko agindua Urrutikoetxeak eman zuela pentsatzeko «zantzuak» daude auzitegiaren ustez. Gertaerak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo izan zirenez eskumena Auzitegi Gorenarena dela dio auzitegi horrek.

Auziaren instrukzioa egiteko Jose Ramon Soriano epailea izendatu du Auzitegi Gorenak. Josu Urrutikoetxeari deklarazioa hartuko dio, besteak beste.

Agentziak | MADRIL-COPENHAGUE

Jose Maria Michavila Espainiako Justizia ministroa Europako Batasuneko zenbait herritako Justizia ministroekin bilerak izaten ari da atzotik hasi eta gaur arte, Batasuna legez kanporatzeko prozesuaren berri emateko. Elkarrizketa horiek Kopenhagen izaten ari dira, eta bertan egin adierazpenetan Espainiak «terrorismoaren aurkako borrokan EBko gobernu guztien babesa» duela baieztatu zuen atzo Michavilak.

EBko Justizia eta Barne ministroak atzo eta gaur Kopenhagen izango direla baliatuz, bertan goi bilera informala egingo baitute aipatu ministro

Espainiako Gobernuak «EBko gobernu guztien babesa» duela adierazi du Michavilak

ek, legez kanporatzearen gaineko zehaztasunak eman nahi dizkie Michavilak bere kideei, banan-banan.

Hala, Portugal, Frantzia, Danimarka, Belgika eta Erresuma Batuko Justizia ministroekin elkartu zen atzo Michavilla. Gaur, berriz, Alemaniakoarekin jarria du hitzordua, eta baita AEBetako fiskal nagusi John Ascroftekin ere. Azken hori Kopenhageko bilera informalean parte hartzekoa da, EBko herrialdeen eta AEBen arteko

estradizio akordio bat lortzeko helburuarekin.

Solaskide bakoitzari agiri batzuk aurkeztuko dizkio Espainiako Justizia ministroak: Alderdi Politikoen Lege Organikoaren itzulpen labur bat, Batasunaren legez kanporatzea eskatzeko Espainiako Parlamentuan hartutako erabakia, eta hasi berri den prozesuaren oinarriko 10 puntuekin osatutako iruzkin bat, besteak beste.

Bestalde, Europako herrialde guztiak, «inoiz baino gehia-

go, terrorismoaren aurkako borrokan Espainiako demokraziarekin elkartasunean» daudela adierazi zuen Michavilak. Bere hitzetan, denek ulertzen dute Espainiako Gobernuaren jarrera, eta horrek «terrorismoaren aurkako borrokan EBko gobernu guztien babesa du».

Bereziki, Dominique Perben Frantziako Justizia ministroak herenegun helarazi zion «Espainiako demokraziarekiko elkartasuna» azpimarratu zuen Michavilak. «Elkartasun hori Batasuna legez kanporatzeko prozesua bultzatzeko Parlamentuak nahiz Gobernuak hartutako erabakien gainekoa izan zen», esan zuenaren arabera.

Bihar

K2

Egunkaria

Egunkaria



Gerrako desagertuak, azalera datozen orotzapenak
Bophal, zorigaitz amaiezina
Ase eta gose, Berde bizi, kontsumoa...



Lainoak eta ostarteak aurten euskal turismoan
Petrolio, prezioak eta ekoizpena eztabaidagai
Erresuma Batua eta euroa, erreferendumaren bidean

...zure independentzia

